



TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
EGUNA / FECHA: 24/01/2018
HASIERA / INICIO: 20:15
AMAIERA / FINAL: 20:20

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA/ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
V́ctor-Martín Amparan ́lvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udaltzatzen idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotzietan banatu zaien gai - zerrendaren arabera, eta akordio proposamen hauek egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2018ko urtarrilaren 10eko saioko akta onartzea.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 10 de enero de 2018.

2.- Efizientzia energetikorako diru-laguntzak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak abenduaren 26ko 173/2017 Foru Dekretuaren argitalpenaren berri izan zuen, zeinak Udalei eta Mankomunitateei efizientzia energetikoaren esparruan jarduketak egin ditzaten diru-laguntzak emateko oinarri eta deialdi arautzaileak ezartzen dituen. Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen "Udalaren kirol-instalazioetan eta argiteria publikoan argiztapena ordezkatzeko proiektua" gauzatzeko laguntza eskatzea.

2.º.- Subvenciones eficiencia energética.-

La Junta de Gobierno Local, fue informada de la publicación del Decreto Foral 173/2017, de 26 de diciembre, por el que se establecen las bases y convocatoria reguladoras de la concesión de subvenciones a Ayuntamientos y Mancomunidades para actuaciones en materia de eficiencia energética, y acordó, por unanimidad, solicitar ayuda para la ejecución del proyecto de "Sustitución de la iluminación en instalaciones deportivas municipales y alumbrado público".

3.- Horma-hobi esleipena.-

Kontuan hartuta R. U. U. aurkezturiko eskaera, Udal Hilerriaren horma-hobi bat eman dakion, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera onartzea eta 11. horma-hobia esleitzea.

3.º.- Concesión de nicho.-

Visto el escrito presentado por R. U. U., solicitando la concesión de un nicho en el Cementerio Municipal, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición y asignarle el nicho número 11.

4.- Fidantza-itzulketa.-

Tokiko Gobernu Batzordeak adostu zuen, aho batez, M. G. F.ren, Hydroforest, S.L. sozietatearen administrari bakarraren, eskaera onartzea, Santarenako lursailetan negutegi-modulua ezartzeko jarri zuen 500 €-ko fidantza itzulketa.

4.º.- Devolución de fianza.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la solicitud presentada por M. G. F., en calidad de administrador único de la sociedad Hydroforest, S.L., para la devolución de la fianza de 500,00 € que depositó para la instalación de módulo de invernadero en terrenos de Santarena.

5.- R. G. Z.ren berraztertze errekurtsoa.-

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, R. G. Z.k jarritako berraztertze errekurtsoa gaitzestea. Errekurtsoa jarri zuen Tokiko Gobernu Batzordearen 2017ko urriaren 18ko akordioaren kontra, zeinaren arabera adostu zen Bus-

5.º.- Recurso de reposición de R. G. Z.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó rechazar el recurso reposición interpuesto por R. G. Z., contra el acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 18 de octubre de 2017, por el que se acordó proceder a la ejecución subsidiaria de la retirada de la caseta instalada en terrenos del



tendi baserriko lursailetan ezarritako etxola modu subsidiarioan kentzea. Errekurtsoa gaitzetsi da bertan jasotako alegazioek ez dutelako inolako funtsik eta Bustendi baserria eraberritzeko une honetan egiten ari diren gestioen berri ematera mugatzen direlako.

6.- Baja Biztanleen erroldatik.-

Biztanleria eta Lurralde Mugaketaren Araudiaren 72. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta kontuan hartuta Erroldatze Kontseiluko Probintzia Atalak igorritako aldeko txostena, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, J. E. R. A.i ofiziozko baja ematea Biztanleen Udal Erroldan, inskribatze desegokia dela kausa.

7.- San Antonioko enklabea.-

Tokiko Gobernu Batzordeak San Antonioko enklabe ohiarekin, berriki Busturia udalerrian txertatu denarekin, lotuta egindako gestioen berri izan zuen.

Alkate eta Idazkari jaunek Bizkaiko Foru Aldundiko Hondartzen Zerbitzuaren arduradunarekin izandako bileraren berri eman zuten; azaldu zuten hondartza-zerbitzuekin loturiko guztia aztertu zutela harekin: garbiketa, hondartzainen zerbitzua, salbamendu- eta sorospen-zerbitzua, hondartza inguruko trafikoa, etab.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera egitea Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari Busturiko Udala "Bizkaiko hondartzen eta euren eraginpeko eremuen kudeaketari eta kalitateari buruzko akordio markoa" delakora atxiki dadin.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudana Idazkariak sinatuta.

Alkatea/El Alcalde,

Izp./Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

caserío Bustendi, dado que las alegaciones contenidas en el recurso no tienen fundamento alguno y se limitan a informar de las gestiones que está realizando en este momento para reformar el caserío Bustendi.

6.º.- Baja del Padrón de habitantes.-

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 72 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial, y visto el informe favorable emitido por la Sección Provincial del Consejo de Empadronamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dar de baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes, por inscripción indebida, a J. E. R. A.

7.º.- Enclave de San Antonio.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de las gestiones realizadas en relación al antiguo enclave de San Antonio, recientemente incorporado al municipio de Busturia.

El Sr. Alcalde y el Sr. Secretario informaron de la reunión mantenida con el responsable del Servicio de Playas de la Diputación Foral de Bizkaia, con el que se analizó toda la temática relativa a los servicios playeros (limpieza, servicio de hondartzainas, servicio de salvamento y socorrismo, tráfico en torno a la playa, etc.).

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia la adhesión del Ayuntamiento de Busturia al "Acuerdo marco sobre la gestión y calidad de las playas de Bizkaia y sus ámbitos de influencia".

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Iz./Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez